

d. Aldaketa: Eraikiko diren babes ofizialeko 21 etxebizitzak saltzeko izango dira. Alokatzeko izango ziren 9 etxebizitza eraikitzeke betekizuna kendu egin da.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era

a. Izapidetzea: presakoa.

b. Prozedura: irekia.

c. Esleitzeko era: lehiaketa.

4. Lizitazio oinarria: 477.478,09 euro.

5. Esleipenaren data: 2010eko martxoaren 25a.

6. Aldaketaren data: 2010eko uztailaren 29a.

7. Esleipenduna: Construcciones José Martín SA – Construcciones Ondarre SL aldi baterako enpresa elkarte

Oion, 2010eko abuztuaren 20a.– Alkate-lehendakaria, ALBERTO I. ORTEGA.

GAUBEA

5726

Hasierako onarpena ematea Karkamuko 10 poligonoko 93 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari.

Alkatearen abuztuaren 23ko 288/2010 Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Javier Acha Oñate jaunak aurkeztutako xehetasunezko azterlanari, hain zuzen ere, Karkamuko (Araba) 10 poligonoko 93 lurzatiari dagokionari. Azterlana, bestalde, Ángel García Armentia, Ignacio Ibarrondo García eta Idoia Urralburu Soto arkitektoek idatzitako dokumentazio teknikoan oinarritzen da. Horiek horrela, espediente hori hogeiei egunez egongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epe horretan, beren burua nola edo hala kaltetuta ikusten dutenek Gaubeako Udaleko bulegoetan aztertu ahal izango dute espediente, eta, nahi izanez gero, egoki deritzeten alegazioak idatziz aurkeztu.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2010eko abuztuaren 23a.– Alkate-lehendakaria, JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI.

ZIGOITIA

5762

2010 urterako lan publikoko eskaintza

Alkatetza honen 2010eko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, Udal honen zerbitzura dagoen pertsonalaren 2010 urteari dagokion lan eskaintza onartu zen, ondoren zehaztutako onarpen berridun lanpostuak agertzen direlarik bertan:

KARRERA FUNTZIONARIAK, ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

Administrari laguntzailearen azpieskala, lanpostuaren izendapena: jendaurreko arretarako administrari laguntzailea, bete gabeko lanpostu kopurua: 1, C2 taldea, hornikuntza-sistema: oposizio-lehiaketa, Txanda: promozio askea, Dedikazioa: osoa, Helburu-osagarria: 16, Osagarri espezifiko: 5.531,85 euro, Hizkuntza-eskakizuna: 2, 2009ko urtarilaren 1eko derrigortasun-datarekin, Titulazioa: eskola-graduatu.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 91 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 16ko 1989/6 Legearen 22 eta ondorengoetan agintzen dena betez publiko egiten da hau.

Ondategin, 2010eko abuztuaren 25ean.– Alkatesa, NURIA LÓPEZ DE LETONA LENGARAN.

d. Modificación: Las 21 viviendas de protección oficial a construir serán en régimen de venta. Se elimina la obligación de construir 9 viviendas en régimen de alquiler.

3. Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación

a. Tramitación: urgente.

b. Procedimiento: abierto.

c. Forma: concurso.

4. Tipo de licitación: 477.478,09 euros.

5. Fecha de adjudicación: 25 de marzo de 2010.

6. Fecha de modificación: 29 de julio de 2010.

7. Adjudicatario: UTE Construcciones José Martín, SA –Construcciones Ondarre, SL

Oyón-Oion a 20 de agosto de 2010.– El Alcalde-Presidente, ALBERTO I. ORTEGA.

VALDEGOVÍA

5726

Aprobación inicial de Estudio de Detalle (Parcela 93 del Polígono 10), en Cárcamo.

Aprobado inicialmente, mediante Decreto de Alcaldía nº 288/2010, de fecha 23 de agosto, el Estudio de Detalle presentado por D. Javier Acha Oñate, que afecta a la parcela nº 93 del polígono nº 10, sita en la localidad de Cárcamo (Álava), conforme a la documentación técnica redactada por los arquitectos D. Ángel García Armentia, D. Ignacio Ibarrondo García y Dña. Idoia Urralburu Soto, el expediente se somete al trámite de información pública por un plazo de veinte días contados a partir del siguiente al de inserción del presente anuncio en el BOTHA, durante el cual podrá ser examinado en las oficinas del Ayuntamiento de Valdegovía, por cuantas personas se consideren afectadas a fin de que se presenten, en su caso y por escrito, las alegaciones que se estimen pertinentes.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Valdegovía, a 23 de agosto de 2010.– El Alcalde Presidente, JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI.

ZIGOITIA

5762

Oferta pública de empleo para el año 2010

Por Resolución de esta Alcaldía de fecha de 29 de julio de 2010, se aprobó la oferta de empleo de personal al servicio de este Ayuntamiento correspondiente al año 2010, en el que figuran las plazas de nuevo ingreso con el siguiente detalle:

FUNCIONARIOS DE CARRERA, ESCALA ADMINISTRACIÓN GENERAL

Subescala Auxiliar Administrativo, Denominación del puesto: Auxiliar administrativo atención al público, Número de vacantes: 1, Grupo C2, Sistema de provisión: Concurso-oposición, Turno: Promoción libre, Dedicación: completa, Complemento de destino: 16, Complemento específico: 5.531,85 euros, Perfil lingüístico: 2, con fecha de preceptividad de 1 enero de 2009, Titulación: graduado escolar.

Lo que se hace público en cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 91 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, y 22 y siguientes de la Ley 6/1989, de 16 de julio, de la Ley de la Función Pública Vasca.

En Ondategi, a 25 de agosto de 2010.– La Alcaldesa, NURIA LÓPEZ DE LETONA LENGARAN.